

Liburu Eguna ospatuko da gaur eta bihar Azpeitian

Apirilaren 23an ospatzen da Liburuaren Nazioarteko Eguna, baina aurten astelehena denez, Azpeitiko Udalak eta Udal liburutegiak gaur, ostirala, eta zaturako antolatu dituzte ekimenak. Horrela, liburu eskaintza zabala egoteaz gain, liburutegiko zerbitzu erakusketa eskainiko zaie herritarrei. Udalak argitaratu dituen liburuak salgai jarriko dira plazan, arkupetan. Liburu bakoi-tza 5 eurotan salduko da. Bestalde, 700 urteurrena ospatzeko argitaraturiko liburuak ere salmentan egongo dira. Bakarka erosiz gero 5euro liburu balio du bakoi-tzak, eta bilduma osoa erosita, 35 euro. Haurrentzat argitaraturiko ipuin bilduma 5 eurotan eskuratu ahal izango da. Gaur, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era izango dira ekimenak eta bihar, zaturan, 11:00etatik 13:00etara bitartean.